

Euskal Selekzioa lehen aldiz lehiatuko da European Gamesen

Bilbo, 2026eko irailaren 25ean.

Brusela-Tubizen jokaturako 2025eko Quadball Munduko Kopan estreinatu eta 22. postua lortu eta gero, aurreko Euskal Selekzioak lehiaketa ofizial batean errepikatuko du bigarren aldiz. Urriaren 3 eta 4ean, Selekzioak Tarragonara egingo du bidaia European Gamesen lehiatzeko, europar mailako selekzioen txapelketan.

Txapelketa Mediterranean Sports Huben jokaturako da, Salou eta Cambrils artean, urriko lehen asteburuan. Europako hamabost talde lehiatuko dira kontinenteko talderik indartsuena zein den erabakitzeko, besteak beste, Euskal Herria, Katalunia eta Espainia daudelarik.

Zer da quadballa?

Quadballa **eskubaloia**ren, **errugbiaren** eta **brilearen elementuak nahasten dituen** kirol alternatiboa da, eta bere berritasuna eta dinamika aniztasunagatik nabarmentzen da. Harry Potter-en unibertsoan oinarriturik sortu bazen ere, diziplina independente hau bere sustraieratik urrundu da, batez ere **kirol barruko LGBTQ+ komunitatearen errepresentazioagatik**.

Talde mistoetan jokatzen da eta genero berdintasunari, inklusioari eta aniztasunari garrantzi berezia ematen zaio, pertsona guztien parte-hartzea bermatzeko diseinatutako arauekin. Gaur egun, quadballak liga nazionalak eta nazioarteko lehiaketak ditu, hala nola Munduko Kopa edo Nations Cup.

Kirolaren berrikuntzak markaturako ibilbidea

Txapelketa honek etorkizun oparo bat iragartzen du Euskal Selekzioarentzat. Izan ere, Euskal Herriak txapelketa ofizial batean parte hartzen duen bigarren aldia izango da hau, lehenengoa iaz jokatu zen Munduko Kopa izanik.

Euskal Selekzioaren ibilbidea 2018ko ekainean hasi zen, Gazteizen jokaturako Eskualdearteko Kopan lehiatu zenean. Txapelketa horretan, Euskal Herria Espainiako eskualdeko-selekzio onena bezala gailendu zuten. Bost urte igaro ziren berriro jokatu ahal izan zuten arte, oraingoan 2023ko Quadball Nations Cupen, garapenean dauden taldeei lehiatzeko aukera ematen dien munduko mailako txapelketa. Euskal Selekzioak zortzigarren postua lortu du txapelketa honetan orain arte ospatuko hiru edizioetan.

European Gameseko partidak doan jarraitu ahal izango dira. YouTube zuzeneko emanaldi bat egongo da International Quadball Association katetik egina, han zelaietako bateko partidak igorriko dira. Gainerako partidak quadball.live web orrian jarraitu ahal izango dira, zuzeneko markagailu batekin.

Harremanetarako informazioa

Ane Aranguren

622 29 00 82

info@euskadiquadball.eus

Prentsa-oharra



Euskal parte hartzea hau ez da zelaian soilik emango, euskal komunitateko hainbat kide funtsezkoak izan dira txapelketaren antolakuntzan, besteak beste Aitziber Mindegia, ostatu koordinazioan; Daniel Price, txapelketaren zuzendaritzan; eta Yeray Espinosa, lehiaketaren formatuaren diseinuaren ardurapean.

Zer da Euskadi Quadball?

2016ko urriaren 14ean sortua, Euskadi Quadball quadballa sustatu eta zabaltzeko sorturiko irabazi-asmorik gabeko kultura-elkarte bat da.

Elkarteak tokiko lehiaketak sustatzen ditu, hala nola, Euskal Liga, Iparraldeko Liga eta Euskal Kopa, baita Mangamore Kopa eta Transpiriniotar Kopa bezalako lehiaketa ez-ofizialak ere. Karitate jardueretan ere parte hartu du, haurtzaro transgeneroaren eskubideen babesaren aldeko elkarreentzat dirua biltzen duen The Emerald Dragon Tournament txapelketarekin bat eginez.

2022an, kirola haurrei aurkezteko diseinatutako unitate didaktiko bat sortu zuen, "Quadballa Eskoletan" izeneko hezkuntza-proiektua. Proiektu honek DBHko 3. mailako gorputz-hezkuntzako ikasleentzako doako unitate didaktiko bat barne hartzen du, euskaraz, gaztelaniaz eta katalanez eskuragarri dagoena.

Euskadi Quadballek Euskal Selekzioak eskualdearteko bai nazioarteko txapelketetan parte-hartzea antolatzen du ere, debuta 2018ko Eskualdearteko Kopan izan zelarik.

Txapelketa handi bat hasiera moduan

European Gameseko debuta oso garrantzitsua izan arren denboraldiaren hasiera besterik ez da. Urtean zehar ekitaldi, txapelketa eta jarduera gehiago izango dira. Horien bidez, Euskadi Quadballetik, quadballa guztiongana hurbildu nahi dugu, baita gure taldeak indartu eta gure kirola sustatu ere. Kirol denboraldia gailurrean amaituko da 2027ko Quadball Munduko Koparekin, Euskal Selekzioa Londresera joango da uztailean munduko talde onenen aurka lehiatzeko.

Harremanetarako informazioa

Ane Aranguren

622 29 00 82

info@euskadiquadball.eus